



# HAUR ETA GAZTE LITERATURA: BITARTEKARITZAREN ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK

2026

**Non:** Euskadiko Artxibo Historikoa, Bilbo

**Noiz:** 2026ko martxoaren 4tik ekainaren 17ra

**Asteguna:** asteazkena

**Ordutegia:** 17:00-20:00

**Ordu kopurua:** 42 ordu

**Irakaskuntza modalitatea:** presentziala

**Ikasleei eskatuko zaie:** asistentzia (%80)

**Antolatzaileak:** EAEko Liburutegi Zerbitzua eta Galtzagorri elkarteak

**Arduradun akademikoa:** Miriam Luki (Galtzagorri elkarteak)

## AURKEZPENA

Ikastaroaren xedea hurrekin eta gazteekin literatura bitartekaritzan ari diren bitartekariei **tresnak** eskaintzea da; alde teorikoari helduko diogu, baina ikastaroaren ardatza **bitartekaritza-praktikak** izango dira; arreta berezia jarriko diogu gazteekin egiten den irakurketa-bitartekaritzari.

Ikastaroak tresnak eskaini nahi dizkio bitartekariari hurrekin eta gazteekin irakurtzen dutenean erabil ditzaten. Irakurtzen ikasi egiten dela dio Anna Juan Cantavellak eta ikasteko prozesuan laguntzen ari den bitartekariari erremintak ematea ezinbestekoa da. Tresna teorikoak ezinbestekoak dira, baina praktikoei egingo diegu azpimarra. Ikastaroaren helburua da bitartekariak maleta bete tresna ateratzea generoak lantzeko, ikuspuntu anitzak baliatzeko, obrak aukeratzeko eta haiek ere irakurtzen ikas ditzaten.

Saio gehienak euskal adituak eta arituak egingo dituzte, kanpotik ere etorriko dira puntako adituak hemengoen jakintza aberastera.

## HARTZAILEAK

Bitartekaria da liburuaren/irakurketaren eta haurren edo gaztearen dagoen profesionala, amateurra edo gurasoa. Zubia da, xamana da. Bi mundu lotzen ditu eta ez da magia egiten



dakielako; lotzen baditu, bi munduak (haurra/gaztea eta literatura) oso ongi ezagutzen dituelako da. Ezagutza hori da, hain justu, ikastaro honetan landuko duguna.

Hartzaileak, horrenbestez, bitartekaritzan ari direnak dira: liburuzainak, irakasleak, liburu-saltzaileak, editoreak, irakurleak, idazleak, ilustratzaileak, gurasoak eta, finean, haur eta gazte literaturaren bitartekaritzan interesa duen edonor.

### HOMOLOGAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren homologazioa eskatuta dago. Onarpenaren zain.

### EBALUAZIOA

Titulua lortzeko %80ko asistentzia eskatuko zaie ikasleei. Ez dute lanik egin beharko.

### IZEN-EMATEA

Ikastaroan izena emateko epea zabalik egongo da otsailaren 6a arte. Horretarako formulario hau bete behar da; formularioan datu pertsonalak eta gehienez hamar lerroko gutun bat idatzi behar da, non ikastaroa egiteko motibazioa agertu behar den.

30 lagunentzat tokia dago.

Ikastaroan onartutako pertsonen emailak jakinaraziko zaie lehenbailehen.

### MATRIKULA

Matrikularen prezioa:

- 50 euro langabetuek eta ikasleek
- 100 euro Galtzagorriko bazkideek
- 150 euro beste guztiek

Matrikula Galtzagorri elkartearen bitartez egin beharko dute.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
Kultura Ondarearen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
Dirección de Patrimonio Cultural

## PROGRAMA

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA: BITARTEKARITZAREN ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK

#### 1. Bitartekaritza: oinarriak

|                       |             |                  |
|-----------------------|-------------|------------------|
| Galtzagorri elkarteak | Martxoak 4  | Galtzagorri      |
| Hitza                 | Martxoak 11 | Freddy Gonçalves |
| Irudia                | Martxoak 18 | Piu Martinez     |

#### 2. Bitartekaritza: espazioak

|                    |                            |                                                                                                             |
|--------------------|----------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Eskola liburutegia | Martxoak 24<br>(asteartea) | Maria Pousa                                                                                                 |
| Herri Liburutegia  | Martxoak 25                | Ziortza Onaindia                                                                                            |
| Eskola             | Apirilak 15                | David Bilbao eta Idoia<br>Alustiza DBHko eta<br>Batxilergoko literatura<br>irakasleen arteko<br>elkarriketa |

#### 3. Bitartekaritza: praktikak eta tresnak

|                               |             |                                                                                                                     |
|-------------------------------|-------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Ahozkotasuna                  | Apirilak 29 | Juan Kruz Igerabide eta<br>Yolanda Arrieta<br>Bakoitzak banakako<br>ordubeteko saioa eta<br>bien arteko elkarriketa |
| Ipuin kontaketa eta antzerkia | Maiatzak 6  | Amaia Egidazu eta<br>Intza Alkain<br>taula gainean                                                                  |
| Narratiba                     | Maiatzak 13 | Idazleak idatzi<br>Miren Agur Meabe<br>Haurrek eta gazteek<br>sortu<br>Eider Perez                                  |



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
Kultura Ondarearen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
Dirección de Patrimonio Cultural

|                         |             |                                                                                                                     |
|-------------------------|-------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Poesia                  | Maiatzak 20 | Poetak idatzi<br>Leire Bilbao                                                                                       |
|                         |             | Hurrek eta gazteek<br>sortu<br>Peru Magdalena eta<br>Saroa Bikandi                                                  |
| Albuma                  | Maiatzak 27 | Karla Fernandez de<br>Gamboa eta<br>Maite Gurrutxaga<br>Banakako ordubeteko<br>saioa eta bien arteko<br>elkarriketa |
| Komikia eta fanzinea    | Ekainak 3   | Maite Caballero eta<br>Paula Estévez                                                                                |
| Bitartekaritza: bilketa | Ekainak 10  | Anna Juan Cantavella                                                                                                |
| Bitartekariaren tresnak | Ekainak 17  | Mireia Delgado                                                                                                      |